


## Balorezko proposamenak



Eskainiko dugun zerbitzua erabilera anitzeko txartel bat da, honen bidez, gauzak erabiltzeko eta irekitzeko erosotasuna hobetuko du.

- **DISEINUA:** Bere itxura txartel normal batena izango da. Bestalde, lau kolore ezberdin aukeratu ahalko dituzte, gorria, urdina, berdea eta morea. Honen neurria 9 x 5 cm izango da, horrela diru zorroan edo poltsikoan eramateko erosoagoa izango da.

- **BERRIKUNTZAK:** Erabilera anitzeko txartel hau berrikuntza bat izango da, oraindik ez baita horrelakorik asmatu. Bere itxura txartel normal batena izango da nahiz eta hainbat desberdintasun izan besteengan; hau da, “chip” bat eta hatz marka erabiltzeko aukera izango du, horrek ematen baitio funtzionamendua txartelari.



Prestazioari dagokionez, zerbitzuak eta erabilerak hobetu edo berritu egingo dira. Berrikuntza edo hobekuntza hauek gehien bat chip-arekin loturik daude, esaterako, denbora pasa ahala txartelaren funtzioak gehitzen edo kentzen joango gara, baita hauek hobetzen aktualizazioen bidez, eta horrekin batera diseinu berriak ere eskuragarri egongo dira bezero bakoitzaren beharrei eta gustuei egokituz.

**SEGURTASUNA:** Produktu hau oso segurua da, izan ere, hatz markari esker, txartela lapurtzen badizute edo galtzen baduzu automatikoki desaktibatuko da; hau da, zurea ez den hatz-marka bat detektatzen badu ez du funtzionatzen, hala ere, webgunetik desaktibatuzko aukera ere izango du. Bertan, honen kokapena agertuko zaizu, behin zure datuak sartuta edukita, horrela edozein momentutan lokalizatu ahalko duzu.



- **ERABILERA:** Chip-aren bitartez, bezero bakoitzak produktuaren erabilera konfiguratu eta bere erabilera zehazteko aukera izango du; adibidez: atea ireki, kotxea piztu...

Gailu hau hasiera batean, alde batetik, atea eta kotxeak irekitzeko balioko du. Txartel hau erosten duten bezeroek, txartelaz aparte sensore bat erosi beharko dute ateetan jartzeko, horiek ireki ahal izateko. Beste alde batetik mobilak, ordenagailuak eta tablet-ak pizteko ere balioko du. Hauen funtzionamendua ahalbideratzeko aplikazio bat sortuko dugu, bertan, bakoitzak txartelean egongo den kodigoa sartu beharko du eta behin sartuta, ordenagailuak, mobilak eta tablet-ak irekitzeko balioko du. Hau da, gailua pizterakoan pasahitza jarri ordez, txartela kamara jarrita aparatua desblokeatu egingo du. Momentuz gauza hauek irekitzeko bakarrik balioko du. Denbora pasa ahala eguneraketak egiten joango gara, gauza gehiago irekitzeko balio izateko.

Era berean, txartela Internetetik konfiguratuko da. Enpresak webgune bat izango du Chip horren erabilerak abian jartzeko eta bertan konfiguratuko dira bakoitzak nahi dituen erabilerak. Hatz marka aktibatzeako aukera webgunean eta dendan egongo da eta arazoak edukiz gero, mantenu zerbitzuak gure esku egongo dira. Gainera, txartela puskatzen bada edo funtzionatzeari uzten badio, guk konpondu edo beste berri bat emango dizuegu. Bukatzeko, norbaitek chip-a konfiguratzeako zailtasunak izanez gero, guri e-mail edo dei baten bidez bere datuak bidaltzeko aukera ere izango du, eta modu horretan, guk konfiguratuko eta aktibatuko diogu.